

ANALISIA



Europako hiririk onena



Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

ARGAZKIA: BILBOKO UDALA

Akabo, pasa zaigu gainera MTVa eta eraman ditu aurretik Bizkaiko hiriburuak makro-ekitaldira begira luzituta-ko apaingarri guztiak. Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusiak eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak argi-joko eta konfeti artean inauguratu zuten San Nikolas metro sarrerako erroju erraldoia nola -zeinak MTV EMA heldu arteko atzera kontua egin duen-, itzali egin dira multinazional estatubatuarraren bisitaldia argiztatzeko foku itsugarriak. Azkenaldian pairatutako argi poluzioa nabarmenki jaitsi den honetan, hiriaren izatezko itxura agerian geratu da ostera.

Hiritarrek beraien soa argitasun aldatara egokitu arteko tartea aprobetxatu dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak lehen balorazioak egiteko. Ez bat ez bi, MTV EMA ekitaldi nagusiaren ataritan egindako MTV Music Week-aren baitako kontzertuetan izandako publiko eskasia eguraldi txarrari egotzi diote -nahiz eta Durangoko kasuan leku itxian izan-, eta Bizkaiko Foru Aldundiak MTV-ren etorrera "oso arrakastatsutzat" jo du. Bilboko alkatea, bere aldetik, hainbestetan ahotan hartutako inpaktuaz mintzatu da: Aburtoren arabera, MTVak Bilbon ez ezik Bizkaia osoan inpaktu handia izan du, epe luzean ere eragina izango duena. Inpaktua zein terminotan neurtu, emaitzak oso ezberdinak izan daitezke

ordea, eta "handiak" positibotik bezainbeste izan dezake negatibotik. Zehaztasun gehiago ondo legoke, alkate jauna.

Instituzioen jarrera positiboak, baina, kontraste ederra egiten du azkenaldian makro-ekimenen gerizpean egondako hiriarekin. Hiri bat non fokupean emakumeek* erasoak jasaten jarraitu duten (MTVak iraun bitartean hiru gizonen emakume* bat bortxatu zuten segurtasunaren izenean polizia jositako Bilboko kaleetan, agenteak arduratuegi baitzebiltzan hiri ereduaren kontra altxatzen ziren ahotsak erreprimitzen); hiri bat zeinak migratzaileak kriminalizatu eta nahieran arakutzen dituen udaltzaingoa daukan; hiri bat zeinetan Cabacasen hiletaren epaiketak erakutsi digun moduan, polizia inpunitate osoz esku-hartu eta hil dezakeen; hiri bat gune autogestionatuak eraisten dituena, eta huste aginduak indarrean dituena; hiri bat, turistifikazio eta gentrifikazio prozesuen bitartez, klase apaleneko herritarrak prekarietatera kondenatu eta kanporatzen dituena; hiri bat, edozer eta edozeinen gainera gutxi batzuen interesen defentsan jarduten duena; hiri bat, azken finean, eredu neoliberalak itsuturik daukana, eta hargatik injustizia, desoreka eta miserien zerrenda etengabe puzten duena. Eskerrak, bederen, flamenko eta urdaiazpikoagatik nabarmentzen den.

EKONOMIAREN TALAIAN

Euskal modernitatea eta lan prekarietatea



Juan Mari Arregi

Nafarroako eta EAEko gobernuak, hala nola beren foru edo tokiko administratzaileak harro dabiltza hemengo hiri, museo, geografia, gastronomia eta edozelako ekitaldi mota handiren modernotasuna azpimarratuz: gero eta nazioarteko turismo gehiago erakartzen dutela diote. Egun batzuek gure artean bizi diren turistok dirua gastatu eta kontsumitzen dute, eta milaka langileren egoera eragina dauka horrek. Administrazioa diru publikoa jartzen ari da turismoarentzat traktore omen diren ekitaldi horietan. Langileen egoera ere, hain da modernoa... ezen prekariedade eta esplotazioa bizi duten. Diru publikoa zeinen mesedetan da orduan? Etekin pribatuak miseriazko lan-baldintzekin lortzen dituztenentzat.

Joan den astean Bilboko Barceló eta NH hoteletan garbiketa zerbitzuetako langileek greba mugagabeari ekin diote. Logela bakoitza 2,5 euroren truke garbitu behar izaten dute eta ondorioz lanegun luzeak egin behar dituzte etxera hilean 800 euroko soldata eramateko. Euskal jatetxe dotoreetako langileak keku dira euren lanaldi eta baldintza prekarioen ondorioz. Garai batean museotakoak keku ziren bezala. Ez daukagu argazki orokorrik esateko ostalaritzaren egoera nolakoa den, baina aipaturiko adibide horiek izebergaren punta izan daitezke: euskal zentro askotan dagoen prekariedade eta esplotazio masa handitik agerian geratutakoa.

Turismoa erakartzeko milioika euro jartzen dituzten administrazioek -kasu gehienetan diru hori esku pribatuetara joaten bada ere- kontrol gehiago eduki beharko lukete *hor behean* langileekin gertatzen denaz; hotelak eta jatetxeak hain ondo funtzionatzea posible egiten duenerako... Euskal modernotasuna bai, baina enplegu duina ere bai.